

inguruko errietako jendeen ipuiak —gertatuak edo asmatuak— eta ateraldiak aurkezten zaizkigu liburu onetan ere, baiña bere xaltxan: bertako izkeran, alegia. Jokabide onek baditu bere alderdi onak eta ez ain onak, San Martin'ek itzaurren esaten digun bezala. Batez beste edo oro ar, ordea, etzait batere gaizki iruditzen San Martin'ek artu duen bidea. Literatura-mota oni eztio kalterik egiten eta bai onik aski berez dagokion gisan maneaturik agertzeak. Atsegiñago izango dira orrela ipuiak askoren aorako, eta ez Deba ibaiaren ingurukoenerako bakarrik.

Ipuiak berak nolakoak diren zerorrek ikusi bear duzu, irakurle. Etzera erraz damatuko, orixe alde zurretik esan dizazuket, liburu au erosteaz. Eztira guztiak, noski, malla batean ipintzekoak, baiña guziak dira biziak, egokiak eta aisa baiño aisago irakurtzen diren orietakoak. Batzuek, berriz, eta ez gutxi, bere laburrean eta zorrotzean, gain-gaiñekoak. Txapela, makilla naiz kopa eskeiñiko balu iñork euskal-“unorearen” sari, egin diteke orain, San Martin'i eskerak, elitzakeala Eibar-Plaentxietatik urruti geldituko.

Ipuien gatza eta egillearen prestaeraren alde bear bezala mintzatu bear banu, enuke berealakoan bukatuko. Utsen kontua, berriz, laster egingo dut, ezpaitiot liburuari bat besterik arkitzen: bein edo bestetan ageri den *s* eta *z*-rekiko naastea. Badakit an ongi bereizten ezti-tuztena, baiña obe litzake, alaz guttiz ere, bereizkuntza ori izkribuetan aalik zuzenen gordetzea, erderaz *b* eta *v*-rekin edo egiten den antzera.

#### ZIRIKADAK (IPUIN BARREGARRIDUN LIBURUA). *Juan*

*San Martin*. Kuliska sorta, 35-36'gn. zenbakiak. Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en, 1960.

Bizi dena agertzen omen da eta orixe gertatu zaigu euskal-soroan eibartarrekin eta ingurukoekin. Luzaroan eduki ditugu baztertuak, aien izkerari irri eta burla genbiltzala, arrazoizko oñarririk gabe gaiñera. Geren buruari begiratzan bagenio aurrenik, ez gaiñake, noski, orren erraz arrika asiko. Utsik gabeko euskera non aurki? Beterri aldeko eta erdi-nafarron aotan ez, beifipein.

*Zirikadak* Jon Etxaide'k moldatu zuen *Pernando Plaentxiatarra*-ren anaia da, baiña ez anaia bixkia. Plaentxia'ko, Eibar'ko eta